

Lezoko Autobiaren Aurkako Herri Ekimenak eta AHTren Aurkako

Asanbladak kaleraturiko komunikatua:

Harremanetan jartzeko TLFNOA: 943-300979

OIARTZUNEN LANBARRENGO GARRAIO PLATAFORMAREN ERAIKUNTZA LANEK ERAGINDAKO TXIKIZIOA SALATU DUTE

Udalen iharduera kritikatu eta Diputazioak Gaintxurizketan “200 hektareako zonalde industrial-logistikoa” ezartzeko “Eurohiria” egitasmoan egiten duen proposamena arbuiazen dute

GAINTXURIZKETAKO BAILARA DEFENDITZEAREN ALDE IRAILAREN 22AN IBILALDIA DEITU DUTE

Lezoko Autobiaren Aurkako Herri Ekimenak eta AHTren Aurkako Asanbladak Oiartzunen berriki hasitako Lanbarrengo garraio plataformaren eraikuntza lanek eragin duten hondamena salatzen dugu. Errepidezko garraiorako poligono handi honen hastapenaren ondorioz, gainera, Gaintxurizketa bailarak alderik alde pairatzen duen erasoaldia larriagotzera doala ohartarazi behar dugu. Bertan 200 hektareako zonalde “*logistiko-industrial*” erraldoi bat ezartzeko Diputazioak “*Baiona-Donostia Eurohiria*” egitasmoan aurrikusitako ekintzak aitzinatzen ditu Lanbarrengoak, inoiz gauzatuko balira nekazaritzako ingurune baliotsu honen suntsiketa ekarriko luketenak. Hori dela eta, Gaintxurizketako bailara defenditzera eta irailaren 22an, igandearekin, Lezotik Oiartzunera egingo den ibilaldi informatiboan parte hartzera deitzen dugu. Ibilaldi horren bidez, egitasmo horiek Gaintxurizketan kalteturiko inguruak bertatik bertara ikusi eta garraiorako poligono eta azpiegitura handien hedapen txikitzailearekiko oposizioa adierazi nahi dugu, proiektu hauen aurkako erantzunari elkartzeko eta eztabaidatzeko aukera emanaz. **Ibilaldia goizeko 10etan Lezoko Udaletxetik atera eta eguerdiko 1'30etan Oiartzungo Udaletxean amaituko da, hain zuzen ere, Lezo eta Oiartzungo udalek Gaintxurizketako auzian duten jokabideagarentik protesta egiteko. Deialdia zabalik dago sostengua erakutsi nahi duten eskualdeko talde eta elkarteentzat, eta gaiaren inguruan guztion iritzia trukatzeko asmoa dugu halaber.**

Lanbarren, Oiartzungo udalerrian Gaintxurizketa aldera kokaturik dagoen ibarra, basoz estalitako lur-eremua izan da orain arte --haritzia aipagarria izanik--, Arañaburu errekek zeharkatu eta berezko ekosistemaren osagarri ugari gordetzen zituena, aurretik A-8 Autopistaren igarobideak Arkaleko Haitzen azpian eta N-1 errepideak Olidenean kaltetua izan bazen ere. Gaur egun, ordea, ibarra erabat suntsitzen ari dira, Gaintxurizketako bailaran aurrikusitako poligono logistikoetarik lehenengoaren eraikuntza lanak uda honetan hasi dituztela eta: merkantzien errepide bidezko garraio, biltegi eta banaketarako plataforma handia egiten hasiak dira Lanbarrenen, non bere bultzatzaileek eguneko 1.000 kamioiren joan-etorria espero duten. Lanbarrengo poligonoak 52 hektareako lur azalera harrapatuko du zuzenean eta ingurumen eraso gogorra eragingo duten lan handiak eta lur mugimenduak hasi dituzte Lanbarrenen: egin beharreko indusketak 2.600.000m³ eta betelanak beste 1.700.000m³koak dira, kasu, eta “*kontentzio orma garrantzitsuak*” altxatu beharko dituzte, Lanbarren esplanada handi bat bihurtuko dutenak. Uda honetan hasitako lanen ondorioz, jadanik, inguru guztian baso mozketak egin dute, eta errekarren kanalizazioarekin batera lur mugimenduei ekin die “*Ubiri*” eraikuntza enpresaren makinaria handiak.

Lanbarrengo poligonoaren bultzatzaile Oiartzungo Udalak, era lotsagarrian, ibar honetako lur ez-urbanizagarriak “*industriarako lur urbanizagarri bereizi*” gisa errekalifikatu zituen, baita Arañaburu errekarri balio ekologikoa eta babesa aitortzen zizkieten izendapenak ezabatu ere, garraio sekoreko enpresarien eskaerei men eginez (Transportes San Jose, Alditrans, Marqueset, Transportes Lopez...). Ondoren “operazio” honekin bat egin duen beste talde enpresarial bat ere bada, “*arrantza merkataritza eta logistika*”ri loturikoa berau (arrantza industrialaren produktuen manipulazio eta komertzializazio

masiboan aritu nahi duena, alegia). Honi dagokionean, Oiartzungo eta Lezoko udalek, Irungoak bezalaxe, "merkatu librearen" harrapakariak berekin dakartzan etengabeko txikizioari eta ingurumen sozialaren galerari erreparatu gabe, enpresak eta zerbitzuak --prekarietate eta mugikortasun gorenekoak-- zonalde logistiko handietan biltzeko interesa duten gaur egungo lanaren antolaketa kapitalista berriei erakutsitako obediencia itsu-itsua salatu beharrean gaude. Eta are gehiago, nekazaritzako balio handiko lurak osatzen dituztenean Gaintxurizketan garraiorako plataformen hedapenarekin txikitu nahi dituzten eremuak, Diputazioeko Nekazaritza Sailak berak *"Gipuzkoako Nekazaritzako Lurzoruak Babesteko Irizpideak"* txostenean (1996) emandako aholkuei muzin eginez. Izan ere, honako hau dio txosten horrek, Gaintxurizketa barne hartzen duen Oiartzungo nekazal unitatearen garrantzia azpimarratuz: *"Nekazaritzako potentzialtasun handiko zona hau, paisaiaren arloan ere oso baliotsua dela eta Aiako Harria gune natural babestutik hurbil dagoela kontuan izanik, nekazaritzaz kanpoko iharduera-mota guztietatik babestu egin behar da"*. Alabaina, Gaintxurizketako kasik lur guztiak urbanizagarri izatera iragaten ari direla salatzen dugu, promotoreen eta merkatuaren probetxurako eta gizarteko interes kolektiboen kaltetan. Era berean, Lanbarrengo poligonoarekin eramandako prozesuan ez da inolako gizarte eztabaidarik sustatu, eta horrek espazio kolektiboaren erabilpenari eragiten dioten erabakietan jendearen parte hartzea oztapatu du.

Lanbarrengo poligonoaren garapena dela eta, Gaintxurizketako bailara osoan erasoaldia aitzinatzen da. Izan ere, Diputazioak bultzaturiko *"Donostia-Baiona Eurohiria"* deritzon egitasmoak Gaintxurizketan *"200 hektareako parke logistiko-industrial"* ezarri nahi du *"epe labur/erdiko batean"*: egitasmo honen esanetan, *"metropoli berriaren eskala handian ekintza zabalagoa eta erabatekoa planteatu daiteke, Eurohiriaren eraikuntzak ahalbidetu eta aldarrikatzen duen paradigma, metropoliak egindako apustu logistikoarekin bat etorritik"*... Egoera kezkatzeko modukoa da, Lanbarrengo plataformaz gain, Sprilur elkarteak --poligono industrialen sustapenerako elkarteak, alegia-- Gaintxurizketan beste hiru garraio-poligono handi sustatzen ari baita jadanik, osotara 125 hektarea nekazaritzako lur txikitu eta porlanez eta asfaltoz estaliko lituzketenak: *"Lezoko Triangeluko Plataforma Intermodala"*, *"Lezoko mendebaldeko Parke Logistikoa"* eta Landetxean *"Arasoko Parke Logistikoa"* dira horiek. Aldi berean, esan gabe doa plataforma horien gauzapenak era guztietako garraio eskaerak emendatuko lituzkeela, baina batez ere kamioien trafikoa. Ondorioz, bide-sare berri zabal baten eraikuntzarekin osatzen da egitasmoa, besteak beste Gaintxurizketako poligonoak lotzeko eta Lezoko Autobia borrokatua Landetxaraino luzatzeko. Hori guztia nahikoa ez, nonbait, eta berriki Txingudiko Partzuergoak Gaintxurizketan zaborren errauskailu bat ezartzeko asmoa agertu du, bestalde... proiektu kaltegarrien ugalketa katastrofikoa areagotuz.

Garrantzi handia dauka Gaintxurizketan egin asmo duten zonalde logistiko zabal honek, AHTrekin, autobia eta autopista lerro berrien eraikuntzarekin (gure eskualdean egungo autobide-sarea bikoiztu baino gehiago egin nahi dute instituzioek), Jaizkibelgo Superportua eta itsasertzera tunelen bidez egin asmo dituzten sarbideekin, Hondarribiko aireportuaren kapazitatea handiagotu nahi duen aferarekin, eta abarrekin duen lotura estua salatzeak: proiektu horiek denak, osotasunean harturik, gure lurraldean *"Atlantikoaren garraio plataforma logistiko handia eratzea"* helburu duen azpiegitura plan erraldoiaren osagarri eta parte dira. Gaintxurizketako garraio plataformen multzoaren tamainari dagokionean, kasu, *"ekimen honek merkantzien fluxu ahalik eta handienak erakartzeko eta negoziatzeko gaitasuna izango duen parke transnazional baten gauzapena dakar, errepede, trenbide eta portu sareei loturik"*, adierazten du birritan *"Eurohiriaren Liburu Zuria"*k. Horrez gain, inolako lotsarik gabe aitortzen du aipatu plataformak egungo errepede eta trenbide sarean oinarrituta abian jarri eta *"ekimen honen ondorioz eragingo litzatekeen trafikoaren hazkundeak egungo azpiegituren saturazio arazo bat planteatuko"* duela, AHTren *"korridore berriaren urgentzia eta beharrezana indarragotuz"*. Honek egiaztatzen du Gaintxurizketako plataformen eraikuntza AHTren proiektua atzerazina bilatzeko estrategian kokatzen dela bete-betean.

Hortaz, Oiartzun eta Lezoko udalek Gaintxurizketan duten iharduera guztiz kontraesankorra dela deritzogu AHTren eta bere izaera inposatzailearen errefusapenarekin. Hain zuzen ere, kontraesanean dago AHTren auzian instituzioetatik bultzatzen ari den garraio eredua, lurralde antolakuntza eta, azken finean, gizarte eredua zalantzan jarri behar dela esateko elkarren artean mantentzen dugun adostasun aski zabalarekin, baita egungo egitura ekonomiko eta sozialak

berdintasunez eta gure ingurune ekologikoarekiko errespetuan eraldatzearen alde egiten ditugun aldarrikapenekin ere.

Bukatzeko, era honetan gure lurraldean globalizazio ekonomikoaren eraginak geroz eta nabarmenago ageri zaizkigula salatu nahi dugu: gure ingurua hartzen ari den sistema produktibo eta territorialak suntsidura ekologiko larria eragiteaz gain, bertako gizarte eta kultur-nortasunari ere gogor erasotzen ari zaio. Benetan, gure bizi-ingurua itxuragabetu eta arrotz bihurtzen diguten zantzuak geroz eta nabariagoak dira, espazio metropolitarrak eta zirkulatioaren hazkunde beldurgarriak irentsi eta lurralde geroz eta anonimoagoa, hondatuagoa eta kultur-nortasun lokalik gabekoa utzita. Horri dagokionean, Donostia-Baiona konurbazioaren egitasmoa gogor salatu nahi dugu, plan horren erronka nagusia nazioarteko merkantzien fluxuak areagotzea eta trafiko kopuru ahalik eta handienak erakartzeko gaitasuna luketen garraiorako azpiegitura handiak eraikitzea baino ez delako. Hartara, jarduera ekonomikoaren sektore batek --garraioak eta ekonomia globalaren merkantziak banatzeko zonalde logistikoak hedapenak-- hegemonizatzen duen lurralde okupazio bortitza bultzatzen du, eta hori, azken urteetan jadanik agerian jarri bada ere ez dagoela garraioak ingurugiroan eta gizarte arloan eragiten dituen kalteen bezainbesteko larritasuna eta aniztasuna batzen duen beste iharduerarik (kutsadura atmosferikoa, energia xahuketa eta aldaketa klimatikoa, lurraren urbanizazioa, produkzio eta kontsumo era berrietan eragina, landako eta hiriko paisaiaren hondamena, zarata, arriskugarritasuna, eta abar).

Horregatik guztiagatik, Lanbarrenen garraio plataformaren ezarpenak eragindako txikizioa salatu eta Gaintxurizketako bailara babestearen alde irailaren 22an, igandearekin, Lezotik Oiartzunera egingo den ibilaldian parte hartzera dei egiten dugu. Elkartzeko zita goizeko 10etan izango da Lezoko Udaletxearen aurrean. Esan bezala, deialdia zabalik dago sostengua eman nahi dioten talde guztientzat.

Zuen partehartzea espero dugu beraz eta deialdi honen berri zuen inguruan ematea eskatzen dizuegu.

TXIKIZIOA GELDITU! GAINTXURIZKETA DEFENDA DEZAGUN!


PLATAFORMA LOGISTIKOARI EZ! EUROHIRIA EROKERIA!



Lanbarrenen hasitako lanak

(atzekaldean Orereta eta Donostialdea ikus daitezke)

“Eurohiria” egitasmoak Gaintxurizketan 200 hektareako zonalde logistiko-industrialia planteatzen du



GAINTXURIZKETAKO KORRIDOREA

Gaintxurizketako errepidea
 Autobidea (2. Fasea)
 N-1
 A-8

ORAIN ARTEKO POLIGONOAK
PROIEKTATURIKO POLIGONO BERRIAK